

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 4782

*243/2020 DEKRETUA, azaroaren 3koa, zeinaren bidez kargutik kentzen baitira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide batzuk, eta beste batzuk izendatzen.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez sortu zen Lanbide-Euskal enplegu zerbitzua, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa; lege horren 7.1 artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua da aipatutako erakundearen gobernu-organo Goren.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onesten dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako kide hauek osatuko dute Administrazio Kontseilua:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Bi bokal, Eusko Jaurlaritzak izendatuak, eta, hala badagokio, kargutik kenduak, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Bost bokal Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkarietan. Bost bokal horiek aipatutako sindikatuak aukeratuko dituzte, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.
- f) Bost bokal Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkar-teen ordezkarietan. Bost bokal horiek aipatutako elkarteak aukeratuko dituzte, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011ko abenduaren 12ko EHAA, 233. zk.) izendatu ziren Lanbide-Euskal enplegu zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat etorritik.

Horren ostean, beste zenbait berritze egin dira Lanbideren Administrazio Kontseilua osatzen duten kideen artean, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari bai Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen eta enpresaburuen elkar-teen ordezkari dagokienez.

Gaur egun, bokal titularretako batek, Juan Ramón Azkue Manterola jaunak, eta ordezkari bokale-tako batek, Maria Elena Pérez Barredo andreak, kargua utzi dute, eta kargu hori betetzea izan zen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide izendatzeko oinarria. Beraz, beharrezkoa da bokal berriak kargutik kentzea eta izendatzea.

Horrenbestez, Jaurlaritzaren bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 3an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

2020ko azaroaren 10a, asteartea

## XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hauek kargutik kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa:

Juan Ramón Azkue Manterola jauna, bokal titularra gisa, eta Maria Elena Pérez Barredo andrea, ordezko bokal gisa.

2. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkari gisa:

Javier Zarraonandia Zuloaga jauna, bokal titularra gisa, eta Mikel Amundarain Leibar jauna, ordezko bokal gisa.

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onesten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 3an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.